



2012/11/23ko prentsa-oharra


ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTATISTIKA 2012ko 3. hiruhilekoa

Oin berriko etxebizitzak eraikitzeak aurreikuspena % 102,9 igo da 2012ko hirugarren hiruhilekoan aurreko hiruhilekoarekiko, baina 2011ko hirugarren hiruhilekoarekiko % 27,5 jaitsi da.

Etxebizitzaren birgaitzeak eutsi egin du, % -0,6, azken hiruhilekoan, eta % 10,2 murriztu da azken urtean.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egindako Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren arabera, 2012ko hirugarren hiruhilekoan aurreikusi da oin berriko 834 etxebizitza eraikitzea; aurreko hiruhilekoan baino 423 etxebizitza gehiago, hau da, % 102,9 gehiago. 2011ko hirugarren hiruhilekoarekiko 317 etxebizitza gutxiago dira, hots, % 27,5eko jaitsiera.

Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera.
Euskal Autonomia Erkidegoa. 1998-2012.



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika

Bizkaiak, 402 etxebizitzarekin, Euskal Autonomia Erkidego osoan eraikitzea aurreikusitako oin berriko etxebizitzaren % 48,2 hartzen du 2012ko hirugarren



hiruhilekoan. Aurreko hiruhilekoan baino % 195,6 aurreikusitako etxebizitza gehiago dira, baina % 40,2 gutxiago 2011ko hirugarrenko hiruhilekiko.

Gipuzkoa du atzetik, aurreikusita dauden oin berriko etxebizitza guztien % 26,1ekin, 218 etxebizitzarekin. Lurralde horrek % 8,4ko jaitsiera izan du aurreko hiruhilekoarekiko, baina % 4,8 gehiago iazko hiruhileko berarekiko.

Bestalde, Araban oin berriko 214 etxebizitza eraikitzea aurreikusi da, guztizkoaren % 25,7; aurreko hiruhilekoan baino % 478,4 gehiago eta iazko hiruhileko berean baino % 21 gutxiago.

Arabako Lautadan egingo dira Araban aurreikusi diren oin berriko ia etxebizitza guztiak, % 81,3; Goierriko eskualdean, Gipuzkoakoen % 61,5 eta Bilboko metropolian, Bizkaikoen % 50,7.

Vitoria-Gasteizen oin berriko 172 etxebizitza eraikiko direla aurreikusi da, Euskal Autonomia Erkidego osokoen % 20,6 eta Arabakoen % 80,4. Ondoren honako hauek daude: Durango, 118 etxebizitzarekin — erkidegokoen % 14,1—, Barakaldo, 94 etxebizitzarekin — erkidegokoen % 11,3— eta Zumarraga, 76 etxebizitzarekin — erkidegokoen % 9,1—. Euskal Autonomia Erkidegoko 251 udalerrietatik, 34tan — 7tik batean baino pixka bat gehiago— zegoen etxebizitza berriak eraikitzeko asmoa.

Bestalde, hiruhileko honetan aurreikusitako 159 birgaitzeak bigarrenengo hiruhilekoan aurreikusitakoak beste izan dira, -% 0,6, baina iazko hiruhileko berarekiko baino % 10,2 gutxiago.

Euskadiko udalek emandako obra handiko lizentzia kopurua % 14,7 murriztu da 2012ko hirugarrenko hiruhilekoan aurreko hiruhilekoarekin alderatuta eta % 13,4 2011ko aldi berarekin alderatuta.

Udalek onartzen dituzten obra handiko lizentzien kopurua (eraikuntza ez publikoaren sektorearen egoeraren adierazle gisa erabili ohi da) 574koa izan zen 2012ko hirugarrenko hiruhilekoan; hau da, aurreko hiruhilekoan baino % 14,7 gutxiago eta urtebete lehenago baino % 13,4 gutxiago.

Hamarretik zortzi —% 82,2— birgaitze-lizentziak dira; % 16,7 oin berriko eraikinetarako, eta gainerakoa, % 1, eraisketa-lanak egiteko soilik — guztira 6 —.

Bizkaian, obra handiko 286 lizentzia eman dira; Araban, 180; eta Gipuzkoan, 108. Azken horren kasuan, oin berriko eraikinak egiteko lizentziak horien guztien % 26,9 dira, eta Arabaren eta Bizkaiaren kasuan, aldiz, % 15 eta % 14 hurrenez hurren.



ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA EAE-N		2012ko 3. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldea		Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldea	
OBRA HANDIETARAKO LIZENTZIAK		Kopurua	%	Kopurua	Aldea (%)	Kopurua	Aldea (%)
EAE	Guztira	574	100,0	-99	-14,7	-89	-13,4
	Oin berriko eraikinak	96	16,7	-24	-20,0	-28	-22,6
	Birgaitzeak	472	82,2	-76	-13,9	-52	-9,9
	Eraispenak	6	1,0	1	20,0	-9	-60,0
Araba	Guztira	180	100,0	-64	-26,2	-36	-16,7
	Oin berriko eraikinak	27	15,0	-14	-34,1	-9	-25,0
	Birgaitzeak	150	83,3	-51	-25,4	-24	-13,8
	Eraispenak	3	1,7	1	50,0	-3	-50,0
Bizkaia	Guztira	286	100,0	-16	-5,3	-45	-13,6
	Oin berriko eraikinak	40	14,0	-2	-4,8	-12	-23,1
	Birgaitzeak	246	86,0	-13	-5,0	-28	-10,2
	Eraispenak	0	0,0	-1	-100,0	-5	-100,0
Gipuzkoa	Guztira	108	100,0	-19	-15,0	-8	-6,9
	Oin berriko eraikinak	29	26,9	-8	-21,6	-7	-19,4
	Birgaitzeak	76	70,4	-12	-13,6	0	0,0
	Eraispenak	3	2,8	1	50,0	-1	-25,0
AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA							
EAE	Guztira	993	100,0	422	73,9	-335	-25,2
	Oin berriko eraikinak	834	84,0	423	102,9	-317	-27,5
	Birgaitzeak	159	16,0	-1	-0,6	-18	-10,2
	Guztira	254	100,0	187	279,1	-52	-17,0
Araba	Oin berriko eraikinak	214	84,3	177	478,4	-57	-21,0
	Birgaitzeak	40	15,7	10	33,3	5	14,3
Bizkaia	Guztira	470	100,0	270	135,0	-292	-38,3
	Oin berriko eraikinak	402	85,5	266	195,6	-270	-40,2
	Birgaitzeak	68	14,5	4	6,3	-22	-24,4
Gipuzkoa	Guztira	269	100,0	-35	-11,5	9	3,5
	Oin berriko eraikinak	218	81,0	-20	-8,4	10	4,8
	Birgaitzeak	51	19,0	-15	-22,7	-1	-1,9

Gipuzkoan % 15 murriztu dira obra handietarako lizentziak aurreko hiruhilekoarekin alderatuta eta % 6,9 2011ko hirugarrengoarekin alderatuz gero. Bizkaian murrizketa % 5,3koa izan da aurreko hiruhilekoarekin erkatuta eta % 13,6ko murrizketa iazko hiruhileko berarekin erkakuta. Azkenik, Araban % 26,2 jaitsi dira lizentziak aurreko hiruhilekoarekin alderatuta; iazko datuekin erkatuz gero % 16,7 jaitsi da.

Arabako Lautadan eman dira Arabako lizentzien % 76,7. Portzentaje hori Bilboko Metropoliak Bizkaiarekiko duen ehunekoaren ia berdina da, % 70,6; Donostialdean, ordea, Gipuzkoako lizentzia guztien % 44,4 baino ez da eman.



**ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA**
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES**
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia
Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Edurne Domingorena

Tel.: +34-945-01 97 12 Fax.: +34-945-01 64 07

Prentsa-oharrak interneten: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.

WEBGUNEA <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-ovse120x/eu/>